

Galdetzaille metatuak Euskara Arkaikoan eta Klasikoan¹

Multiple wh-fronting in Archaic and Classical Basque

Xabier Artiagoitia*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: This article studies the data on multiple wh-fronting in Archaic and Classical Basque. The main conclusions are threefold: (a) both Archaic and Classical Basque were multiple wh-fronting languages; (b) the most typical combinations of two wh-phrases (subject-object and subject-adjunct [how]) accord with the Superiority Condition; and (c) these wh-phrase combinations seem to be consistent with the usual pair-list answer interpretation attributed to multiple questions.

KEYWORDS: multiple wh-phrases; wh-fronting; wh-movement; superiority; Archaic Basque; Classical Basque.

LABURPENA: Artikulu honek Euskara Arkaikoan eta Klasikoan ustez dauden NZ-galdetzaille metatuen adibideak aztertzen ditu. Adibideen azterketak erakusten du: (a) galdetzaille metatuen ezau-garria garai bietarako dagoela egiaztatuta; (b) bi galdetzailen konbinazioek (normalean subjektu-osagarri, subjektu-adjunktua [nola]) bat egiten dutela kasu guztietan Goragotasun Baldintzarekin; eta (c) konbinazio horiek bat datozela galdera anitzei egotzi ohi zaien bikote zerrendaren erantzun motarekin.

HITZ GAKOAK: galdetzaille metatuak; NZ-aurreratzea; NZ-mugida; goragotasuna; Euskara Arkaikoa; Euskara Klasikoa.

¹ Jose Ignacio Hualde nekaezinari zor dizkiot nire bitzta akademikoaren hasieran laguntza handia eman izana eta akuilu lana egin izana, gero fonologiaren bidea jarraitu ez banuen ere; nirekin behinik behin, haren sustatzaile senak beti funtzionatu du. Xumetasunez eta esker onez, bihoa lan hau zurretzat, Jose Ignacio. Artikulu honek Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak diruz lagundu duen PID2022-140336NB-I00 ikerketa proiektuaren babesarekin edukiko du. Eskerrak ematen dizkiet Maider Huarteri eta Julen Manterolari aurreko bertsio bati egindako oharrengatik, baita Lander Intxaustiriri ere datu batzuek bere iritzia emateagatik.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Xabier Artiagoitia. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, 5 (01006 Gasteiz). – xabier.artiagoitia@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-1607-3373>

Nola aipatu / How to cite: Artiagoitia, Xabier (2023). «Galdetzaille metatuak Euskara Arkaikoan eta Klasikoan», *ASJU*, 57 (1-2), 67-87. (<https://doi.org/10.1387/asju.25916>).

Jasoa/Received: 2022-12-01; Onartua/Accepted: 2023-03-24.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. Sarrera

Gaur egungo euskararen arrunta da NZ-galdetzaile metatuko galderak egitea, dela perpaus nagusietan dela mendeko zehar-galderetan:²

- (1) a. ... *nor* zer egingo du, bataren eta bestearen ondorioak inondik inora konparatzekoak ez izaki? (Miren Agur Meabe, *Kristalezko begi bat*, 2013, 74)
- b. ... *nor norekin* zebilen eta zertan zebiltzan kontrolatzea zuen gustoko (Sonia González, *Erreka haizea*, 2018, 73)

Datuok beren xumetasunean galdera batzuk sortzen dituzte: (a) euskararen bitxikeria tipologikoa da edo berdin gertatzen da beste hizkuntza batzuetan ere?; (b) zein da galdetzaile anitzeko galderen interpretazioa (galdetzaile bakarra dutenekin erkatuta)?; (c) murriztapenik badago galdetzaile metatuen konbinazioan?; eta, azkenik, (d) noiztik dauka ezaugarri hau euskarak? Galderok bata bestearekin estuki lotuta daude eta, euskaraz arreta gutxi merezi izan duten arren, ezin esan dezakegu inork jorratu ez dituenik (cf. Reglero 2003; Jeong 2004, 2007; Etxepare 2018). Gauzak horrela, bigarren atalean (a-b-c) galderei dagozkien aurrekariak errepasatu ditut, gaingiroki errepasatu ere, ikuspegi orokorretik (§ 2.1) eta euskal gramatikaren barneko ikuspegitik (§ 2.2). Hirugarren atalean, berriz, (d) galdera hartuko dut jomugatzat eta Euskara Arkaikoan (§ 3.1) eta Klasikoan (§ 3.2) aurkitu (uste izan) ditudan datuak hona ekarri eta xeheki arakatuko ditut. Euskara Arkaikoa eta Zahar-Klasikoa diodalarik, Lakarra (1997) lanaz gero ohikoa den periodizazioa onartzen dut. Laugarren atalean ondorioak emango ditut.

2. Galdetzaile anitzeko egiturak

Galdetzaile anitzeko egiturak, bistan denez, galdetzaile bat baino gehiagokoak dira; esaterako:

- (2) What did you give to whom?
'Zer eman zenion nori?' [Rudin 1988: 445]

Ingelesezko adibide honetan, galdetzaile bakarra (i.e. *what*) aurreratzen da, bigarena bere jatorrizko lekuan geratzen delarik. Beste hizkuntza batzuetan ez dago galdetzaileen aurreraterik baina posible da galdetzaile bi *in situ* geratzea:

- (3) John gei-le shei shenme? (txinera)
Jon eman nori zer
'Nori eman zion Jonek zer?' [Bošković 2015: 252]

² Delako NZ hori galdetzaileak identifikatzeko balio duen ohiko laburdura da, ingelesezko 'wh'-ren parekoa. Artikulu honetan erabili diren gainerako laburdurak hauexek dira: ABS = absolutibo; Ban = banagaia; DAT = datibo; D = determinatzaile; Distr = distribuzio; Dnb = denbora; ERG = ergatibo; espez = espezifikatzaile; Fok = foku; Komp = konplementatzaile; LAG = laguntzaile; Top = topiko. Testamendu Berriko pasarteetan ohiko laburdurak erabili ditut. Testu zaharren adibideak *Orotariko Euskal Hiztegiaren* argibideei jarraituaz aipatzen dira; gaurko grafia erabili dut, hala ere.

Azkenik, hirugarren hizkuntza multzo batean, itxuraz bi galdetzaileak aurreratu egin daitezke; bulgariara litzateke halakoa:


- (4) Koj kogo vižda?
 nork nor ikusi
 ‘Nork nor ikusten du?’ [Rudin 1988: 449]

Zentzu hertsian, (2-4) bitarteko adibide guztietan dauzkagu galdetzaile anitzeko galderak; bulgariara bezalako hizkuntzei ingelesez *NZ-aurreratze anitzekoak* esaten zaie (i.e. ‘multiple wh fronting’) eta, Oyharçabalen (1988) iradokizun bati jarraituz, euskaraz *NZ-galdetzaileen metatzeaz* hitz egin liteke. Nolanahi ere, artikulu honetan *galdetzaile metatuak* edo *galdetzaile anitzak* aipatzen ditudanean, sinonimotzat hartuko ditut gehienetan, deskribapena eta eztabaida errazte aldera. Bulgariarren estilokoak dira (1)-en aurkeztutakoak eta artikulu honetan aztertu nahi ditudanak.³


2.1. Galdetzaile metatuak tipologian eta gramatika sortzailean

Ohiko tipologian NZ-hitz metatuko egituren berri ez da normalean agertzen, nik dakidala behintzat.⁴ Gramatika sortzailean, ordea, nahiko ezaguna da bulgariarren estiloko hizkuntzen berri Wachowicz-en (1974) lanari esker. Wachowicz-ek poloniera eta errusiera aipatzen ditu galdetzaile metatuak dituzten hizkuntzen artean. Geroagoko lan batean, Rudinek (1988) bulgariara, errumaniera, serbokroaziera, txekiera eta poloniera sartzen ditu galdetzaile metatuak dauzkaten hizkuntzen taldean. Hizkuntzon artean, Rudinek (1988), gainera, bereizketa bat sumatzen du: bulgariara eta errumanieraz NZ-hitz metatuek osagai batek bezala jokatzen omen dute galdetzaileen ohiko posizioan (Konp-en espezifikatzaile posizioan alegia), eta beste guztietan lehen NZ-hitza bereizi egiten da gainerako NZ-hitzetatik eta berauek perpausari adjunktatuta geratzen omen dira:

- (5) a. bulgariarren galdetzaile metatuak



- b. polonieraren galdetzaile metatuak



³ Ba omen dira galdetzaile anitzeko galderarik onartzen ez duten hizkuntzak, Stoyanovak (2008) ikertuak: berebera, italiara, irlandera, somaliera. Hizkuntzok partekatzen duten ezaugarria da fokua posizio sintaktiko bakarrera mugatuta edukitzea.

⁴ Dryer-ek (2013), esaterako, ez dakar honen berririk; galdetzaileak perpaus hasieran agertzen diren edo ez jasotzen da, baina ez galdetzaile metatuen aukerarik.

Osagai egitura ez ezik, galdetzaileen arteko hurrenkera ere desberdinak ei dira hizkuntza mota bietan: bulgarieraren ereduko hizkuntzetan aurreratutako galdetzaileek oinarritzko hurrenkerari eutsi behar badiote ere, ez da hala polonieraren tankerako hizkuntzetan.

Berrikiago, Bošković-ek hainbat lanetan (1997, 2001, 2002, 2003, 2007, 2015) berrikusi du Rudinen azterbidea eta galdetzaile anitzen egituren halako tipologia orokorra proposatu du, jarraian laburbilduko dudana. Boeckx & Grohmann (2003) lan bilduman ere NZ-hitz metatuak dituzten hizkuntza gehiago ere aipatzen dira zerrendara gehitzeko: hungariera, malgaxea, persiera, yiddisha, eta euskara bera. Michelioudakis & Sitaridouk (2016) grezieraren hizkera batzuk ere gehitzen dituzte. Baina gaitzen Boškovićen ideia nagusiak laburbiltzera.

Onartu izan da lau hizkuntza mota daudela NZ-hitzak eurak aurreratzeko aukerari dagokionez: NZ-hitz bat nahitaez aurreratzen duten hizkuntzak; NZ-hitzik aurreratzen ez dutenak; NZ-hitz bat aurreratzea aukeran omen dutenak; eta NZ-hitz *guztiak* aurreratzen dituzten hizkuntzak. Ingelesa litzateke lehen ereduaren adibidea, txinera bigarrenarena, frantsesak ordezkaturako luke hirugarren aukera, eta bulgarierak laugarrena. Hala ere, Boškovićek gezurtatu egiten du NZ-hitz metatuak dituzten hizkuntzak NZ-mugidaren tipologian laugarren mota bat direlako ideia; haren ustez, hizkuntza horietan NZ-hitzak NZ-tasuna ez den arrazoi bategatik ere aurreratzen dira: foku-tasunagatik alegia.

Gauzak horrela, NZ-hitz metatuko hizkuntzen artean ingelesa-txinera-frantsesa hirukoteak ordezkatzeko dituen aukerak ere sumatzen dira. Esaterako, errusierak, txineraren antzera, ez omen dauka NZ-tasunak eragindako mugidarik eta NZ-hitzak aurreratzea foku-tasunari zor zaio soilik. Konplementatzaile buruaren [NZ] tasunak honetan parte hartzen ez duenez, edozein hurrenkeratan gauzatzen dira NZ-hitzak:

- (6) Errusiera
 a. Kto kogo ljubit?
 ‘Nork nor maite du?’
 b. Kogo kto ljubit?
 ‘Nor nork maite du?’ (Bošković 2002: 354)

Bulgarierak, aitzitik, ba ei dauka Konp buruko NZ-tasunak eragindako galdetzaileen aurreratzea, ingelesaren moduan; kasu honetan, gorago dagoen NZ-hitzak egiten du lehen mugida (benetako NZ-mugida bakarra dena) eta gainerako NZ-hitzak edozein hurrenkeratan aurreratu daitezke, foku-tasunen batek eraginda mugitzen direnean:⁵

- (7) Bulgariera
 a. Koj kogo običa?
 ‘nork nor maite du?’

⁵ Hiru galdetzaileekin ikusten da hori argien:

- | | | | | | | |
|------|--------------------------------|-------------|-------------|-----|-----------|----------------------|
| (i) | <i>koj</i> | kogo | kak | e | tselunal? | |
| | nork | nor | nola | LAG | musukatu | |
| (ii) | <i>koj</i> | kak | kogo | e | tselunal? | (Bošković 1999: 165) |
| | nork | nola | nor | | | |
| | ‘Nork nor nola musukatu zuen?’ | | | | | |

- b. *Kogo koj običa?
 ‘nor nork maite du?’ (Bošković 2002: 354)

Alde horretatik, Rudinek (1988) aditzera ematen duenaren kontra, bulgarieraz gorago dagoen galdetzailea aurreratzen da lehena, baina hortik aurrera ez legoke preferentziarik gainerako galdetzaileen artean.

Azkenik, serbokroaziera frantsesaren antzekoa da puntu batean: Konp burua hutsa izan daiteke perpaus nagusietan. Beraz, frantsesak NZ-tasunak eragindako galdetzaileen aurreratzerik ez daukan testuinguru berberetan serbokroazierak fokuak eragindako NZ-hitzen aurreratzea edukiko luke, edozein hurrenkeratan:

- (8) Serbokroaziera
 a. Ko koga voli?
 ‘Nork nor maite du?’
 b. Koga ko voli?
 ‘Nor nork maite du?’ (Bošković 2002: 353)

Baina frantsesak ageriko Konplementatzaile burua daukanean (zehir-galderetan edo mendeko perpaus batetik gertatzen denean galdetzailearen mugida) eta, horrenbestez, NZ-mugida ezinbestekoa duenean, serbokroazierak berak ere NZ-tasunak eragindako galdetzaileen aurreratzea edukiko du. Kasu horretan, serbokroazieraz ere gorago dagoen galdetzailea mugituko da lehenik, bulgarieraz bezalaxe:

- (9) Serbokroaziera
 (?) *Ko koga* kažeš **da** je istukao?
 nork nor diozu -ela LAG jo
 ‘Nork nor diozu jo duela?’
 * *Koga ko* kažeš **da** je istukao?
 nor nork diozu -ela LAG jo
 ‘Nor nork diozu jo duela?’ (Bošković 2002: 354)

Gauzak horrela, Rudinen (5)-eko eskema aldatu beharra dago: bulgarieraz NZ-hitz guztiak bai mugitzen dira [espez, Konp] posizioa baina serbokroaziera bezalako hizkuntzetan, ageriko Konplementatzaile bururik ezean, aurreratutako NZ-hitz guztiak fokuari lotutako posizioetara aurreratzen dira.⁶

Modu horretan, Boškovićen azterbidean egiazko NZ-mugida (hots, NZ-tasunak Konp buruaren espezifikatzaile eragindako mugida) behin bakarrik eta Goragotasun Baldintzari jarraituz egiten den mugida litzateke; goragotasuna, zentzu horretan, egiazko NZ-mugidaren diagnostiko bihurtzen da:

- (10) *Goragotasuna*
 Arau batek ezin die Xri eta Yri eragin honako egituran: ... X [α ... Z... -WYV- ...] ... baldin eta arauak Zri zein Yri eragin badieziaieke eta Z Y baino *gorago* badago (Z Y baino gorago egotea = Z-k Y o-komandatzea) (Chomsky 1973: 245)

⁶ Boškovićen lanetan ez da zehazten Fok proiektziorik dagoen edota zein den aurreratutako NZ-hitzen posizioa serbokroaziera bezalako hizkuntzetan.

Alegia, murrizketa horrekin Chomskyk azaldu nahi izan zuen subjektuak, esaterako, gorago daudela osagarriak baino. Beraz, Konp buruari lotutako NZ-mugidak, inor ukitezkotan, subjektuari eragin behar dio osagarriari baino lehenago. Gaur egun, sintaxilari sortzaile gehienentzat Goragotasun Baldintza nola edo hala ekonomia baldintza batera (cf. Sportiche, Koopman & Stabler 2014: 295hh) laburbiltzen da: mugida «laburragoa» da subjektuak egiten duenean, behe-rago dagoen osagarriak egiten duenean baino.⁷

NZ-hitz metatuko hizkuntzetan, hala ere, galdetzaileen aurreratzea posible egiten duen ezaugarria foku-tasuna litzateke, mugida anitza eta desordenatua permititzen duen tasuna, hain zuzen. Fokua 'tasun oro-erakarri' motako tasuna litzateke eta, beraz, [+fokua] duten sintagma guztiak erakartzen ditu; hartara, ekonomiari berdina zaio zein ordenatan egiten diren mugimenduak, akabuan mugimendu guztiak, batera hartuta, kostu berdina baitute. Konplementatzailearen [NZ] tasuna, ordea, 'tasun bat-erakarri' motakoa litzateke eta, beraz, Konp-ek tasun hori duen NZ-hitzen artean hurbilen dagoena erakarri behar du (eta hortixek dator Goragotasun Baldintzari eutsi beharra).

Galdetzaile metatuen interpretazioari dagokionez, Boškovićek (2001) bere lana Hagstrom-en (1998) galderen analisisian oinarritzen du eta aldarrikatzen du [espez, Konp] posizioarekin lotuta dauden galderek erantzun pareak eskatzen dituztela. Hots, harako ingelesezko *who bought what?* galderak erosle eta erosgaien bikote zerrendak emateko eskatzen du, ez du erantzun gisa bikote bakarraren aukerarik permititzen. NZ-hitz metatuak dituzten hizkuntzetan ere, halako erantzun bikoteak behar dira baldin eta galdetzaileak NZ-mugida egin badu (bulgariera); galdetzaileen aurreratzeak NZ-tasunarekin zerikusirik ez duten hizkuntzak dira pare bakarra erantzuteko aukera ematen dutenak (cf. errusiera beti, serbokroaziera baldintza jakin batzuetan).

Laburbilduz, NZ-hitz metatuak dituzten hizkuntzen ezaugarria hau da: NZ-hitzen aurreratzea (anitza den) foku-tasunari zor zaiola. Hiru hizkuntza mota daude: bulgariera bezalakoetan [NZ] tasunak beti hartzen du parte NZ-hitzen aurreratzean (eta goragotasun efektua sortzen du); serbokroaziera bezalakoetan Konp burua dagoenean soilik sumatzen dugu NZ-tasunaren parte hartzea; eta errusiera bezalakoetan [NZ] tasunak berak ez du inoiz parte hartzen eta, horrenbestez, goragotasunik ezean, foku-tasunak sortzen duen NZ-hitzen metaketa edozein hurrenkeratan ager daiteke. Boeckx eta Grohmannek (2003) dioten moduan, azterbide honi puntu ilunik ere ez zaio falta: Boškovićek dioena gorabehera, foku-tasun indartsua duten hizkuntza askotan sintagma bakarra aurreratu ohi da; foku anitzeko egiturak ez dira hain ohikoak, alegia. Bestetik, bulgarierak berak ere ba omen dauka fokuari lotutako proiektzio bat baina, hala ere, NZ-hitz metatuak ez dira horra mugitzen. Kontu irekia da, beraz. Gatozen orain NZ-metatuen gaiak euskal gramatikan eman duena berrikustera.

⁷ Boškovićek batez ere *shortest movement* 'mugidarik laburrena' baldintza aipatzen du behin eta berriro.

2.2. Galdetzaile anitzeko egiturak eta euskal gramatika

Euskarak galdetzaile metatuak dauzkalako ideiak ez du arreta handirik erakarri, ez behintzat ikuspegi tipologikotik, euskalariak datuaren garrantziaz jakitun ez baleude bezala-edo.⁸ Alde horretatik, bereizi egin daitezke galdetzaile metatuko egiturak zeharka aipatzen dituzten lanak eta gaiari zuzenean ekin dioten lanak, bereziki Reglero (2003), Jeong (2004, 2007) eta Etxepare (2018). Batzuk eta besteak, hurrenkera horreketan, aipatuko ditut jarraian.

Lafittek (1962: 99) hiruzpalau lerro eskaintzen dizkio galdetzaile metatuen auziari;⁹ Saltarellik (1988) ere aipamen laburra egiten du eta DS tankerako galdetzaileetara mugatzen du aukera; Oyharçabalek, bestalde, (1988: 96) perpaus erlatiboan analisiaren eztabaidan esaten du euskaraz NZ-hitzen *metaketa* zilegi dela:

- (11) a. *Nork zer* erranen du orduan?
 b. *Nork zer* uste duzu erranen duela orduan?¹⁰

Aipagarria da bigarren adibidea NZ-hitzen biren mugida luzea erakusten duelako. Ortiz de Urbina (1989) lanean aipatzen da, zertxobait gehiago, galdetzaile metatuen afera eta NOR-NORI-NORK egituretan hurrenkera jakin bati (teorian oinarrizkoari) eutsi beharra (cf. Saltarelli 1988) sumatzen du:

- (12) a. *nork nori zer* esan zion
 b. **nork zer nori* esan zion?
 c. **zer nork nori* esan zion? (Ortiz de Urbina 1989: 83)

Geroago, ohar jakingarri batean (Ortiz de Urbina 1989: 265), berriro ukitzen du gaia:

- (13) a. *nork zer* esan du? [cf. c. *nork esan du zer?*]
 b. **zer nork* esan du? [cf. d. **zer esan du nork?*]

Ortiz de Urbinak gaineratzen du lehen galdetzaileak topiko antzeko intonazioa daukela, aditzaren aurre-aurreko galdetzailetik bereizten duena; galdetzaile anitzeko egiturek, bestalde, galdetzaile bat aurreratuta eduki lezake eta beste bat *in situ*, (13c-d) adibideek aditzera ematen duten bezala.

Etxepare & Ortiz de Urbina (2003: 499h) lanak berriro aipatzen du galdetzaile metatuen aukera, oinarrizko hurrenkerari eutsi behar diona, baina beste bi datu ere badakartza; batetik, goragotasunetik kanpo gelditzen omen da galdetzaileen arteko hurrenkera beraietariko bat aurreratuta ez dagoelarik:

⁸ Esaterako, Euskaltzaindia (1987: 39; 2021: 1861) lanetan bide batez aipatzen da *nork zer egin du?* adibide bera hurrenkera neutroaren harira, baina galdetzaile metatuen ezaugarria bera eztabaidatu gabe.

⁹ Lafittek bi adibide dakartza: *nork zer erran dautzu?* eta *noiz nun entzun duzu?*. Azpimarratzekoa da bakoitzaren itzulpena: «qui vous a dit quoi?» eta «où (et) quand l'avez vous entendu?». Alegia, galdetzaile anitzeko egitura batzuk frantsesezko galdetzaile anitzeko egiturari dagozkio, NZ-hitzen bat aurreratuta eta bestea *in situ* kokatuta, eta beste batzuk, aitzitik, juntaduraren bidez interpretatu beharrekoak dira. Azken honek, bestalde, bai onartzen du pare bakarreko erantzuna.

¹⁰ Saltarellik (1988: 22), hala ere, kontrako datua ematen du:

(i) **Nork zer* diozu eman dizula?

- (14) a. Nork ekarri du zer?
b. Zer ekarri du nork?

Bestetik, galdetzaileen metaketan galdetzaileek jatorri bana izan dezakete, bataku perpaus nagusian eta besteak mendekoan:

- (15) *nork zer* uste du [*zer* gertatu dela]
nork nori zer uste du [*nori zer* gertatu zaiola]


Lehen datua (=14a-b) Ortiz de Urbinak (1989) emandakoari (=13c-d) kontrajar-tzen zaio; bigarrena, ostera, ez da gehiegitan aipatzen galdetzaile anitzak eztabaida-tzen dituzten lanetan.

Azkenik, de Rijkék berak (2008: 440) ere aipatzen du euskal galderetan norma-lean hurrenkera jakinari jarraituko dion NZ-hitz metatuen aukera, baina ñabardura bat gehitzen du: mendebaleko hiztunek normalean ez dituzte perpaus nagusietan gal-detzaile metatuko egiturak onartzen; zehar-galderetan, aitzitik, onarpen zabalagoa omen daukate halako egiturek.

Aipamen labur horiek guztiak berrikusi ostean, hiru autore azpimarratu behar di-tugu: Reglero (2003), Jeong (2004, 2007) eta Etxepare (2018).

Reglerok (2003), funtsean, bat egiten du Boškovićek (2002) duen fokua eta gal-detzaile metatuak lotzeko intuizioarekin eta, Ortiz de Urbinaren (1989) analisis bere eginez, proposatzen du euskaraz galdetzaile metatuak Konplementatzailearen az-piko Δ buruaren (diskurtsoari lotutako buruaren) espezifikatzaile anitzeko egitura-n kokatzen direla, lehena mintzagai modura eta bigarrena (aditzaren ondo-ondoan da-goena) foku modura:

- (16) nork zer erosi du?¹¹
top fok



Euskaraz diskurtso mailako elementu oro (dela topiko, dela foku) erakartzen duen Δ burua izango luke. Fokuaren eta aditzaren arteko ondokotasuna Δ burua-ren lehen (beherengo) espezifikatzaileak duen [foku] tasuna nolabaiteko afixu mor-fonologikoa izatearren azaltzen da: delako [foku] tasunak A(ditza) + Dnb buruaren

¹¹ Boškovićen ikuspegiarekin bat (mugidak ez baitu Konp buruarekin zerikusirik), Reglerok dio posible dela (16)-ko galdera 'Jonék alkandora bat' pare bakararekin erantzutea. Aitortu behar dut ez du-dala intuizio hori partekatzen; hor nik eta nire informetzaileek erantzun pareak behar ditugu (hots: 'Jo-nék alkandora bat, Amaiak kamiseta pareá, Josuk pijama bat, eta Ametsek ezer ez').

euskarri fonologikoa behar du. Goren agertzen den NZ-hitza perpaus barruan gorago dagoena litzateke (hots, euskaraz *goragotasuna* sumatzen da) eta, Regleroren arabera behintzat, berau litzateke mintzagai ezaugarri nabarmenak dituen eta erreferentziagabetasun indartsuari uko egiten diona:

- (18) a. *Nor arraiok zer erosi du?
 b. Nork zer arraio erosi du? (Reglero 2003: 210)

Alegia, *arraio* bezalako indargarri bat bakarrik da posible aurretik aipatutako multzorik ez bada (eta, beraz, galdetzailearen erreferentzia erabat zehaztugabea bada); mintzagaiak, aitzitik, aurretik aipatutako multzoari egiten dio erreferentzia hain zuzen. Hiru galdetzaileko konbinazioetan ere, aditzaren ondokoa ez beste guztiak lirajteke nolabaiteko mintzagaiak:¹²

- (19) a. Nork nori zer arraio esan dio?
 b. *Nork nor arraiori zer esan dio?
 c. *Nor arraiok nori zer esan dio? (Reglero 2003: 217)

Hartara, euskarak diskurtso mailako elementu oro erakarriko luke eta hizkuntza eslaviarretan, aldiz, Konplementatzailearen azpiko buru funtzional batek fokuari lotutako elementu oro erakartzen du.

Jeong (2004, 2007) hizkuntzalariak ere euskarazko NZ-hitz metatuen gaiari helzen dio. Haren esanetan, etenik gabeko galdetzaile metatuek hertsiki eusten diote goragotasunari (bulgarieraz edo serbokroazieraz ez bezala):

- (20) a. nork nori zer eman dio?
 b. *nork zer nori eman dio?
 c. *nori nork zer eman dio? (Jeong 2004: 107)

Baina, Reglerok hiru NZ-hitz metaturen analisirako proposatzen duen bezala, goragotasuna erabat nasaitzen da galdetzaileen artean etenak egiten direnean; halakoe-tan, etenaren aurreko galdetzaileek mintzagai modura jokatzeko dute, erreferentzia-dunak dira edo diskurtsoan aurretik aipatutako multzo bati dagozkio; galdetzaileen hurrenkera librea da, beraz:

- (21) a. nork zer, nori eman dio?
 b. nori, nork zer eman dio
 c. nori zer, nork eman dio? (Jeong 2004: 107)

Jeong-en (2004, 2007) analisisian, orduan, mintzagaitzat hartuak diren (eta euren artean hurrenkera librea duten) galdetzaileak alde batera utzita, Fok buruak erakartzeko dituzten galdetzaile guztiak aldi berean; galdetzaile anitzeko goragotasun efektu hertsia Fok buruak duen aditz-tasun batek sortzen ditu; euskaraz adizki jokatutako ergatibo-datibo-absolutiboarekiko komunztadura duenez, galdetzaileen arteko hierarkiak, funtsean, perpaus barruko komunztadura antolaketari (ERG > DAT > ABS) erantzuten dio. Bulgarieraz aditzak, kasu, subjektu-komunztadura baino ez duenez,

¹² Reglerok (2003) dio hiru galdetzaileen metaketan datuak ez daudela guztiz argi, hiztunen arteko aldaketak daudelako, baina aditzera ematen du goragotasuna alde batera utzita bigarren eta hirugarren galdetzaileen arteko hurrenkera librea izan daitekeela.

goragotasuna behin baino ez da sumatuko; hau da, gorago dagoen galdetzailea behin mugituta, ez da gainerakoen artean murrizketarik espero.

Azkenik, Etxeparek (2018) gai bera jorratu du, baina beste ikuspegi batetik.¹³ Etxeparek Boškovićen azterbideari behako bat eman eta nolabait onartu ostean, printzipioz, baztertu egiten du goragotasun efekturik dagoenik aurreko (13a-b) bezalako bikoteetan eta, *de facto*, ontzat ematen du ustezko goragotasun horren kontrako hurrenkera duen adibidea, [+bizidun] diren galdetzaileekin:

(22) nor nork ikusi du? (Etxepare 2018: 9)

**Zer nork* bezalako ezina galdetzaile anizkuneko egituretan NZ-hitzeekin osatzen diren distribuzio-egiturekin lotzen du; izan ere, holakoetan, distribuzioaren giltza egiten duen NZ-hitza *nor* eta *zein* izan badaitezke ere, ezin da *zer* izenordaina inola ere izan:

(23) a. Nork bere ama maite du [= Etxepareren 11. adibidea]
 b. Zein bere tokian jarri da. [= 26b adibidea]
 c. *Mundu honetan, zerk bere saria du [= 51. adibidea]

Gakoa, berez, *zer* izenordainak distribuzioaren giltza markatzeko duen ezintasunean datza (beronen numero eta biziduntasun ezarekin lotuta, Etxepareren arabera). Hori alde batera utzita, funtsean galdetzaile anitzeko egiturek eta NZ-hitzeekin osatzen diren distribuzio egiturek antolaketa berdina izango lukete (gehi galdera gisa interpretatzeko behar dena lehenen kasuan):

(24) [_{DistrS} Nork Distr [_{BanagaiS} *nor /bere ama* Ban [DnbS maite du...]]

Hots, distribuzioa egiten duen NZ-hitza Distribuzio-Sintagman kokatuko litza-teke eta banagaia, berriz, foku-sintagmaren parekotzat jo daitekeen Banagai-Sintagmarenean. Gainerakoan, Etxeparek hainbat paralelismo ezartzen ditu galdetzaile-distribuzio egituren eta galdetzaile anizkuneren artean, hemen denbora faltaz alde batera utziko ditugunak.

Nolanahi ere, gaia bere zabalean erakutsi ondoren, eta printzipioz euskara NZ-aurreratze anitzeko hizkuntza dela berretsi ondoren, esan behar dut galdera asko daukela irekita NZ-hitza metatuen kontu hau ondo ulertzeko: bateko, autore batzuek nabarmendu duten bezala (Reglero 2003; de Rijk 2008) hizkera eta hiztunen arteko aldeak daude puntu honetan. Galdetzaileen metatze murrizketak zein diren ere ez dirudi guztiz argi dagoenik eta datu kontrajarriak eman dira, are autore beraren lanen artean ere. Besteko, Rudinentzat (1988) berebiziko garrantzia dauka galdetzaile metatuek osagai bezala jokatzeko aukera edukitzeak; euskaraz, datu hau nahiko lauso da eta iduri du galdetzaile metatuak erreskadan zein topiko intonazioarekin eman daitezkeela, Jeong zuzen badabil behintzat; pentsatzekoa da datu horren argitan euskararen barruan agian bi estrategia egon litezkeela galdetzaileak metatzeko (bata bulgariaren antzekoa eta bestea serbokroazieraren antzekoa). Mugida luzearen aukerari

¹³ Etxeparek (2018) iradokitzen du, Boškovićen jatorrizko azterbidea nolabait emendatuaz, euskara serbokroazieraren antzekoa izan daitekeela perpaus nagusietan egiazko NZ-mugida eta foku-mugida badirela onarturik baina bien artean hierarkiarik ezarri gabe. Iradokizun horren ondorioz, predikzioa da ez gokeela preferentziarik *nor* motako galdetzaile bi aurreratzen direnean.

dagokionez ere, autoreak ez datoz bat. Deigarria da, halaber, arakatutako artikuluetan lekukotasun idatzi gutxi bildu direla idatzizko testuetatik. Azkenik, galdetzaile metatuak dituzten galderen interpretazioaz zerbait idatzi bada ere (Hornstein 1995; Bošković 2001), zehar-galderen interpretazioaz gutxi eztabaidatu da eta lan teoriko horren beharra legoke arazoa argitzeko. Gauzak horrela, ikergai orokorra beste baterako utzi eta hurrengo atalean kontu mugatuago bati helduko diot: Euskara Arkaikoan eta Klasikoan dauden NZ-hitzen metatuen adibideak arakatuko ditut eta horietatik euskal gramatika (historiko)aren deskribapenerako atera daitezkeen ondorioak zirriborratuko ditut, bestelako asmo handirik gabe.

3. Galdetzaile anitzeko galderak euskaraz: lehen hurbilketa historiko bat

Euskara Arkaikoa deritzon garaiari dagozkien adibideen inguruko informazioa biltzen da ondoko taulan:

1. taula

NZ-hitzen metatuen adibideak Euskara Arkaikoan

Autorea	adibide kopurua	p. nagusian	mendekoan
	5	0	5
Etxepare	1	0	1
Leizarraga	4	0	4

Eta Euskara Klasikoari dagokionez, hona hemen bildu ditudan lekukotasunak:

2. taula

NZ-hitzen metatuen adibideak Euskara Klasikoan

Autorea	adibide kopurua	p. nagusian	mendekoan
	21	7	14
Axular	6	2	4
Aranbillaga	1	0	1
Etxeberri Ziburukoa	1	0	1
Etxeberri Sarakoa	5	1	4
Haraneder	2	0	2
Harizmendi	1	0	1
Pouvreau	2	1	1
Tartas	3	3	0

Bai batean bai bestean, nabarmena da denak iparraldeko autoreen adibideak direla eta hegoaldeko autoreenik ez dagoela; hegoaldeko testuak gutxiago ere badira, baina esanguratsua da datua bere motzean (eta asimetrian). Bestalde, garrantzitsua deritzot mendeko perpausak eta perpaus nagusiak bereizteari. Izan ere, 2.1 atalean

azaldu dudan bezala, aldea egon liteke NZ-hitz metatuen jokabidean, ageriko Konp izan edo ez; printzipioz, Konplementatzailea mendeko perpausetan agertuko da, baina ez nahitaez nagusietan.

3.1. Euskara Arkaikoa

Garai honetako euskaran bost adibide aurkitu ditut:

Etxepare

(25) Mundu honetan badirogu batak berzia engana / Bana berzian egiatik batbera ioanen da / *Nor nolako izan giren* orduian ageriko da / Egin erran pen-satuiak ageriko guziak. (*Linguae Vasconum Primitiae*, 1545: 33)

Leizarraga

(26) Eta kruzifikatu zutenean, parti zitzaten haren abillamenduak, zorthe egotzi-rik haien gainean, *nork zer ioan lezakeen*. (*Testamendu berria*, 1571: Mk 15, 24)

(27) Eta gertha zedin itzuli zenean resuma konkestaturik, mana baitzezan dei le-kizkion dirua eman zerauen zerbitzariak, lakianzat *nork zer trafika egin zuen*. (*Testamendu berria*, Lk 19, 15)

(28) *Zer zergatik Relijionekoek utzi edo kanbiatu ukhan duten* eta zer dadukaten iakin nahi duenak irakur beza Konfesionen haur gogoatuki. (*ABC*, 1571: 50)

(29) ezen bethiere deabrua keixu dabila gure inguruan, lehoin marrumaz dagoen baten anzora, *nor nondik irets dezakeen bilha*. (*Ins*, 1571: 78)

Interpretazio okerrik ezean, galdetzaile metatuen adibideok, gutxi diren arren, permititu egiten dute pare bat ondorio ateratzea NZ-aurreratzearen inguruan: bata mugidaren beraren estatusari dagokiona eta bestea galdetzaile metatuen interpreta-zioari dagokiona.

3.1.1. Lehenengo eta behin, deigarria da adibide guztiak mendeko zehar-galde-rak direla eta, batean (=28) izan ezik, denetan galdetzaileak aditzaren ondoan ageri direla. Bestetik, (28) adibidearen kasuan galdetzaileen konbinazioan *zergatik* dator bigarren, eta galdetzaile hau ezaguna da ez delako beti aditzaren ondo-ondoan ager-tzen, ez orain (Laka 1986; Irurtzun 2021) ez garai bateko euskaran ere (Aldai 2011; Duguine & Irurtzun 2014); alde horretatik, *zer zergatik* NZ-hitz metatuen portaerak *zergatik* soilaren portaera duela dirudi.

Gainerakoan, badauka bere garrantzia, nire ustez, NZ-hitz metatuen eta aditzen arteko ondokotasunak: izan ere, 16. mendeko galdera egiturak nola edo hala aztertu dituztenek (Aldai 2011; Duguine & Irurtzun 2014) azpimarratu dute garai hartako euskarak NZ-hitzak aurreratu egiten zituela baina Dnb-Konp/Fok bururako mugida ez zela hizkuntzan guztiz orokorra. Hona hemen datua berresten duen adibide pare:

(30) *Zer autoritatez gauza horiek egiten dituk?* eta *nork hiri eman drauk* authori-tate hori? (*Testamendu berria*, 1571: Mt 21, 23)

Alegia, 16. mendeko euskara NZ-aurreratzea badaukan baina aditzaren nahi-taezko aurreraterik ez daukan gramatika litzateke. Alde horretatik, zalantza egon

liteke galdetzaile metatuko egituretan galdetzaileak benetan aurreratu diren edo *in situ*, mugidarik gabe, ageri diren. Bi argudiok bultzatzen gaituzte, nire ustez, Euskara Klasikoko adibideotan NZ-hitzen aurreratzean sinestera: batetik, zehar-galdera gehienetan [NZ-hitza + adizki jokatua] ondokotasun efektua aurkitzen dela:

- (31) ... edo *nork ireki dituen* honen begiak, guk eztakigu (*Testamendu berria*, 1571: Jn 9, 21)
 (32) informa zaitezte *nor den* hartan dignerik (*Testamendu berria*, 1571: Mt 10, 11)
 (33) ... eta orain *zerk dadukan* badakizue, hura manifesta dadinzat bere denboran (*Testamendu berria*, 1571: 2Ts 2, 6)

Alabaina, zehar-galdera guzti-guztietan ere ez da ondokotasun hau betetzen:¹⁴

- (34) Eta *norat* ni *ioaiten naizen* badakizue, eta bidea badakizue (*Testamendu berria*, 1571: Jn 14, 4)

Adibide horretan, hala ere, iduri du NZ-hitza aurreratu egin dela, adizki jokatuaren aurreratzea gabe. Beraz, sendoa dirudi NZ-hitzen aurreramendua dagoelako hipotesiak, baita zehar-galderetan ere; hartara, zehar-galderetako NZ-hitza metatuak mugidaren ondorio lirakeke.

Bigarrenik, badira NZ-aurreratze luzeko adibideak Leizarragaren testuan; hau da, galdetzailea gauza da bere perpausetik atera eta perpaus nagusiaren hasierako [espez, Konp/Fok] posiziora, esaldi osoaren gainerako besarkadura posizio batera alegia, mugitzeko:

- (35) Eta hek erran ziezoten, Non nahi duk apain dezagun? (*Testamendu berria*, 1571: Lk 22, 9)
 (36) zer nahi duk dagiadan? (*Testamendu berria*, 1571: Lk 18, 419)

Bi kasuotan, *non* eta *zer* galdetzaileak, perpaus nagusiaren aditzaren ondoan dauden arren, mendeko perpausoko modifikatzaileak dira: *non apain*, *zer egin* gisa ulertzen dira.¹⁵ Hortaz, NZ-hitza aurreratu egiten da eta, printzipioz, mendeko NZ-hitza metatuko egituretan berdin gertatzen zela pentsa dezakegu.

Laburbilduz, NZ-hitzen aurreratzea egiaztatuta daukagu Euskara Arkaikoan, eta galdetzaile metatuak dituzten adibide bakanak ez dira horren salbuespen.

¹⁴ Tamalez, Aldaik (2011) bere azterketatik kanpo uzten ditu zehar-galderak; Andrések ere (1996: 265) aipatzen du Leizarragak mendeko perpausetan ez duela [NZ-hitza + adizki jokatua] hurrenkera beti erabiltzen.

¹⁵ *-(e)la* menderagailudun perpausekin, aitzitik, Leizarragak perpausen garraioa edo *clausal pied-piping* egitura darabil:

(i) Eta akabatzen zuenean Ioanesek bere kursua d, erran zezan, *Nor naizela uste duzue?* (Leizarraga, *Testamendu Berria*, 1571: Egt 13, 25)

Hala ere, Etxeparek (*Eia horrat apart'adi*) *nor uste duk nizala* idazten du (agian metrikagatik?) jada 1545ean eta Pouvreauk 1665eko *Gudu Izpirituala* liburuan *Zer uste duzu izanen duzula eneganik?* dakar.

3.1.2. Euskara Arkaikoko bost adibideek beste ekarpentxo bat ere egiten dute. Galdetzaile biren konbinazio horietan lehen galdetzailearen irakurketa zenbatzaile unibertsal batek izango lukeenaren parekoa da. Alegia, bi hauetan:

- (37) ... zorthe egotzirik haien gainean, *nork zer ioan lezakeen*. (*Testamendu berria*, 1571: Mk 15, 24) (=26)
- (38) ezen bethiere deabrua keixu dabila gure inguruan, lehoi marrumaz dagoen baten anzora, *nor nondik irets dezakeen bilha* (*Ins*, 1571: 78) (=29)

Lehen adibidearen interpretazioa «bat bederak zer joan lezakeen» litzateke; hots, x-k zer eraman dezakeen, y-k zer eraman dezakeen, eta abar. Eta bigarrenean, antzera, adibidea ondo interpretatzen badut behintzat: «bakoitza nondik irents dezakeen bilatu nahian»; alegia, «x leku batetik, y beste batetik, z hirugarren batetik...». Perpaus nagusiei dagokienez, galdetzaile anitzeko benetako galderetan sarri esan izan da (Hornstein 1995; Bošković 2001) galdetzaile anitzeko egiturek erantzun bikoteak eskatzen dituztela galdetzailea [espez, Konp] posizioan badago, jada 2.1 azpiatlean gogora ekarri dudan moduan. Kontua, hala ere, ez da oso aztertua izan mendeko zehar-galderei dagokienez, berauek sarri ez baitira egiazko galderak. Ikusi (39) bestela:

- (39) badakigu *nork zer egin duen*

(39) diogularik, *nork zer egin duen* galderaren erantzuna dakigula esaten ari gara. Eta galdera hori *bakoitzak zer egin duen* galderaren erabateko kidea da. Jarraipenik egitekotan, gaineratuko genuke: *Mirenek gauza bat, Josuk zer edo zer, Anek deus ez*. Alegia, erantzun bikoteak lortuko genituzke, eta *nork* horrek banako bizidunen gaineko zenbatzaile orokor gisa funtzionatuko luke.

Labur esanda: Euskara Klasikoko gure NZ-hitz metatuko adibide urriok erakusten dute galdetzaile biren konbinazioek beste hizkuntza batzuetarako esan denarekin bat egiten dutela eta, printzipioz zehar-galderak diren arren, galdera horien erantzunean (edo erantzunaren interpretazioan) pare zerrendak espero behar direla.

3.2. Euskara Klasikoa

Euskara Klasikoan ere galdetzaile metatuen adibide gehiago aurkitu ditut, kasu batzuetan zalantzan izan naizen arren.¹⁶ Adibide asko ez direla-eta, jarraian ematen ditut denak, hurrenkerara (ustez) kronologikoan.

Ziburuko Etxeberri

- (40) Hargatik oraño hura / Bera dut guardaturen, / Zeren guardian baitzaude / *Nor nola bizi garen*. (*Elizara erabiltzeko liburua*, 1636: 249)

¹⁶ Haranburuk bere *Devozino eskuarra* (1635) liburuaren hasieran *Noiz nor ezin esposa daiten* idazen du; ondoren datorren azalpenak ez du duda izpirik uzten izenburuaren interpretazioaz: *noiz nor ezin esposa daiten* horrek 'noiz bat, edozein, ezin den ezkondu' esan nahi du. Kasu horretan, *nor* ez dut galdetzailetzat hartu.

Axular

- (41) Eta zure prestutasunaz, ohoreaz, eta aitzineko eta ondoko, fama on fama-tuaz, *nork zer* erranen du? (*Gero*, 1643: 2)
- (42) Hunek zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta *nor nola* mintzo den, abisu eman diazadan (*Gero*, 1643: 6)
- (43) Bada xinhaulriaren gobernuaz, zuhurtziaz, traillauez, ethorkizuneko egiten duen probisioneaz, hornizoiñaz, eta biltzen duen mantenuaz, *nork zer* erranen du? (*Gero*, 1643: 22)
- (44) Zeren nola gau ilhunean dabillanak ezpaitu ezagutzen *zerk zer kolore* duen: zein den berde, eta zein more; hala gizon koleratuak ere eztu ezagutzen, noiz mintzo den ongi, eta noiz gaizki: noiz dohan artez, eta noiz makhur. (*Gero*, 1643: 189)
- (45) Bertzerik ezpaliz ere, bere amoranteak berak ekhartzen dio berri franko: *nork zer* dioen, *nor nola* mintzo den, direnak eta eztirenak garraiatzen derautza. (*Gero*, 1643: 237)

Harizmendi

- (46) Xehe, larri, poblu, prinze, / Guztiak xehatuko: / *Nor zein* diren ungi ditu, / Iau onak bahatuko. (*Ama birjinaren ofizioa*, 1658: 18)

Tartas

- (47) Ene soldadoa ezta oraino batheiatu, haren ugazaita behar duzu izain plazer baduzu, ohore hori zuk egiten badrozu, zure izenaren, zure armen pian, noren beldur izanenda? haren kontre *nork zer* erranendu? *nork zer* eginendu? (*Onsa hilzeko bidia*, 1666: 2)
- (48) Ofensazaliari barkhatu bere ofensa, *nork zer* erranen zian Ienkoaren kontre, edo erranik ere deus zer ansia zukian Ienkoak neoren erranaz, Ienkoa sobera da handi, ... (*Onsa hilzeko bidia*, 1666: 116)

Pouvreau

- (49) Ordea fermuki zinetsten duena bere buruko iujeamendua hobe dela bertzeena baino *nork nola* senda lezake? Nolatan iarriko ahal da bertzeren iujeamenduaren azpian, hura eztadukanaz gero berea bezain on. (*Gudu espirituala*, 1665: 39)
- (50) Iguzkiaren azpian den guzia ikusten dut, eta badakit *nor nola* dabillan, zer darabillan bihotzean, zer nahi duen, eta zertara hedatzen duen bere gogoia (*Jesusen imitazionea*, 1669: 162)

Aranbillaga

- (51) Badakizu *nori zer zaion konbeni*; zuri dagotzu eta ez guri ezagutzea zergatik bat bertzea baiño gehiago edo gutiago den fagoratuia (*Jesu Kristoren imitazionea*, 1684: 22)

Sarako Etxeberri

- (52) Mintzorik eta hitzkuntzarik izan ezbaliz, *nork zer* irakhatsiko zuen? Legeak nork eta nola egingen zituen? Mundua nork gobernatuko zuen? (*Gomendiozko gutuna*, 1718: 382)
- (53) eta nor gerlara prestatuko lizateke? (erraiten deraue oraino Apostolu handiak) baldin nihork ezin adi zetzaken hitzez eta hitzkuntzaz mintzatzen baziren, ea *nork zer* adituko zuen hek zer mintzo ziren? (*Gomendiozko gutuna*, 1718: 395)
- (54) Hau da mandari bat aitzinat berri jakitera bezala dohana, eta bide-nabar ikhustera, *nork zer begitarte egingen dioen*; zeren perpausen esplikazioa [...] eta bertze gainerako Gramatikari dagozkan gauzak, hunen begira baitaude, hunek zer iragaiten den edo nolako begitarte izaiten duen eta *nor nola* mintzo den ikhusi eta jakin eta ondoan, kanporat ilkhitzeko edo barrenean gelditzeko (*Gomendiozko gutuna*, 1718: 403)
- (55) Badakit, Eskuararen berririk ezta kitenei gauza hau ezin sinhetsizkotzat idurituko zaiela, zeren bisaja batean hirur presuna diferentent iduriak edo imajinak ezin pintaditezken, zerentariak egundaino ezbaita izan hain pintore habilik bisaja batean hirur presuna diferentent iduriak edo imajinak elkarrekin nahastakatuak *zein zein* diren ezagutzen direlarikan athera ahal izatu tuenik, ... (*Eskuararen hatsapenak*, 1718: 91)


Haraneder

- (56) Eta gurutzefikatu izan zutenean, partitu zituzten haren bestimendak, zortzerat etxaturik *nork zer* eramane zuen (*Jesu Kristoren ebanjelio saindua*, 1740: Mk 15, 24)
- (57) Bizkitartean bere erresumaz jabe egin ondoan, bihurtu zen eta erakharri zituen bere zerbitzariak, zeinei eman izan baitzaroen dirua, jakiteko *nork zer* irabazi zioen (*Jesu Kristoren ebanjelio saindua*, 1740: Lk 19, 15)

NZ-hitza metatuen adibideak ugariago dira Euskara Klasikoan Arkaikoan baino, bai, baina perspektiba galtzea ere ez da komeni eta hemen datu deigarrienak iruzkinduko ditut: (a) funtsean, Axularren harako *nork zer erran zuen* tankerako adibideak errepikatu egiten dira autoretik autorera, eta garai honetako adibide guztietarik erdia baino gehiago dira (11/21; %52,3). Proporzioa handiagoa (%54,5) bihurtzen da (44) adibideko *zerk zer kolore* ere gehitzen badugu; (b) bigarrenez, *nor/nork nola + adizki jokatu*a formula ere, non lehen galdetzaila subjektuari dagokion, sarritan agertzen da (6/21 adibide: %28,5); eta (c) bere tankerako bakarrak diren hiruzpalau adibide daude (cf. 1. irudia).

Esan bezala, Axularren (41) adibideko *nork zer erranen du?* motako adibidea, [Nork_{subjektua} zer_{osagarria} adizki jokatu]a] egituraduna alegia, dugu ugariena eta, Axularrengan ez ezik (adibide bi), Sarako Etxeberrirengan (hiru), Tartasengan (beste hiru) eta Haranederrengan ere (beste bi) sumatzen dugu. Mota honetako hamar (edo hamaika, (44) adibidea bera antzeko subjektu-osagarri adibidea denez) adibideetarik sei perpaus nagusietakoak dira; hau nabarmendu beharra dago Boškovićen planteamenduak aurreikusten baitu perpaus nagusien eta mendekoen artean halako asime-

tria bat egon daitekeela; hemen datuen urriari so eginik ez da halako asimetriarik sumatzen.



1. irudia

Euskara Klasikoko galdetzaile konbinazioen adibideak

Era berean, ohartzekoak dira beste bi datu: Tartasen adibideak (bi gutxienez bai) Axularrenen antz-antzekoak dira (eta kasu bietan liburuaren hasierako orrialdeetan aurkitzen dira) eta agian azken honek lehenaren lanetan eduki zuen eraginaren bidez esplika daitezke (cf. Salaberri 2002: 86); bestalde, Haranederren adibide biak Leizarragak NZ-hitza metatuen bidez emandako pasarte berberei dagozkie (cf. 56-57 vs 26-27) eta hori ere ez dateke kasualitatea.

Mota honetako adibide guztietan, okerrik ez bada, erantzun pareak behar dira: (56) adibidearen irakurketatik «x-k hau eramanen zuen, y-k beste hau eramanen zuen, eta abar» bezalako erantzun pareak espero litezke. Berdin gertatzen da (44) interpretatzean ere («zerk zer kolore duen» ez ezagutzeak gauzen eta koloreen parekatzea ez ezagutzea esan nahi du). Sotilagoa da *nork zer erranen du?* sasi-galderen irakurketa; hor, de Rijken (2008: 441) oharra dator harira: «a multiple question often functions as a rhetorical device to express a strong denial». Alegia, (41) adibidearen kasuan Axularrek ez du benetako informazioa eska luzatzen, bai baitaki inork ez duela ezer esango Etxauzen prestutasunaz eta ohoreaz. Baina galderaren zentzua, hain zuzen ere, erantzun bikoteen ukapena da, pertsona-iritzien ukatzea ('x-k ezer; y-k deus, z-k ere ezer ... ez dute erranen'). Alde horretatik, adibide honek eta antzekoek ohikoa den interpretazioa (edo, *de facto*, interpretazio horren ezezkoa) onartzen dute eta bateragarriak dira goragotasun efektuarekin.

Bigarren motako adibideek ere goragotasunarekin bat egiten dute, *nor* edo *nork* galdetzaile horiek subjektuari dagozkiolako eta *nola* modifikatzaile bati, perpausaren egituraren beheago dagoen elementu bati alegia; Pouvreaurenaz beste guztiak zehar-

galderak dira. Bestetik badirudi erantzun pareak bideratzen dituztela. Hots, Axularraren honetan:

(58) hunek... *nor nola* mintzo den abisu eman diezadan (= 42)

iduri du *nor nola* horren erantzun arrunta ‘Urliak hauxe dio, Berendiak beste hau, ...’ eta abar litzatekeela: mintzodunen eta iritzien parekatzeak alegia.¹⁷

Azkenik, deslai geratzen dira arestiko (46), (51) eta (55) adibideak. Harizmendi eta Sarako Etxeberriren NZ-hitz metatuen adibideak *subjektu-predikatu osagarri* hurrenkeraren araberakoak direla iruditzen zait, goragotasuna konplitzen dutenak alegia; eta interpretazio aldetik ere erantzun bikoteak eskatzen dituzte: hots, jaunak bereiziko du *nor zein* motakoa den (x motako batekoa, y beste batekoa, eta abar). Antzera Ziburuko Etxeberriren adibideaz.

Interes handia dauka, amaitzeko, Aranbillagaren (51) adibideak: *komeni* aditza NOR-NORI motakoa da eta, esan izan den bezala (Artiagoitia 2000: 406hh), aditz mota hauetan batzuetan datiboa jo behar da subjektutzat eta gorago dagoen argumentutzat. Badirudi *komeni* datibo subjektua duten aditzetarikoa dela, uztardura harremanek egia badiote behintzat:

(59) a. ?? Etxe biak bata bestearen jabeei *komeni* zaizkie
b. Jabe biei bata bestearen etxeak *komeni* zaizkie

(60) a. *Miren bere buruari (bakean) *komeni* zaio
b. Mireni bere burua (bakean) *komeni* zaio

Hau da, datibodun zein datibo barruko anafora nekez uztartzen du argumentu absolutiboak *komeni* aditz horrekin; baina datiboak erraz uztartzen du absolutibodun edo absolutibo barruko anafora. Datu horrek datiboa absolutiboa baino gorago dagoela iradokitzen du. Testuinguru honetan, Aranbillagaren adibidea espero dezakeguna besterik ez da: *nori zer* konbinazioa behar du izan, goragotasunari eutsiko bazaio.¹⁸

4. Ondorioak

Artikulu honetan ahalegina egin dut euskarazko NZ-hitz edo galdetzaille metatuen gaia tipologikoki kokatzeko. Badirudi ezaugarri honek euskara batez ere (baina ez soilik) hizkuntza eslaviarretara hurbiltzen duela, berauek (bulgariera, errusiera, serbokroaziera eta abar) direlako halako ezaugarria beren-beregi aitortu zaien hizkuntza.

¹⁷ Pouvreauren *nork nola senda lezake* (48) adibidearekin ere zalantza egon daiteke, baina uste dut baliabide erretoriko berdina datekeela hor; ukatu egiten da *inork inola* ere ezin sendatzea, sendatzaile eta sendamodu pareen ukapena ari da aditzera ematen, alegia.

¹⁸ *Gurutzaketa Ahula* deritzon fenomenoak ere norabide bertsuan seinatzen du:

(i) a. ?? Zein agente_i/nor_i *komeni* zaio bere_i jokalaria?
b. Zein jokakari_i/nori_i *komeni* zaio bere_i agentea?

Perpau horiek ??nor_i *maite du bere_i ama_i?* vs *nork_i maite du bere_i ama?* bezalakoekin erka daitezke; gorago dagoen subjektu-galdetzailleak izenordaina aldagai gisa uztartu ahal du; galdetzaillea behegero dagoen osagarriari dagokionean, aldiz, makurragoa da perpaua.

tzak gramatika sortzailearen zenbait lanetan. Iduri luke hizkuntza horiek guztiek eta euskarak partekatzen dutela NZ-hitzen aurreratzea eta foku edo galdegaiarena modu berdinsuan tratatzea, baina kontu hau ikergai irekia da gaur-gaurkoz (cf. Etxepare 2018).

Euskara Arkaikoa eta Klasikoa barrena topatzen dira NZ-hitz metatuen zenbait adibide; adibideok erakusten dute NZ-hitz metatuak jada 16. menderako hizkuntzaren ezaugarri zirela eta iradokitzen dute, halaber, beste datu batzuekin osatuta ordurako euskarak NZ-hitzen aurreratzea bazeukala, beste autore batzuek ere (Aldai 2011; Duguine & Irurtzun 2014) azpimarratu duten moduan. Egiaztatuta dago perpaus nagusietan ez dela NZ-hitz metatuen adibiderik sumatzen Axularren *nork zer erranen du?* adibide ezagunera arte. Azkenik, garai biotan aurkitzen diren galdetzaile konbinazioak (*nork zer*, *nor/nork nola* gehienbat) bat datoz (edo bateragarriak dira behintzat) goragotasunaren murrizketarekin eta bat egiten dute [espez, Konp] posizioa egiten den mugimenduaren ondorioz galdetzaile anitzek eduki ohi duten pare zerrendaren interpretazioarekin. Datozen ikerketek lagunduko ahal digute gai hau hobeto ulertzen.

Erreferentziak

- Aldai, Gontzal. 2011. Wh-questions and SOV languages in Hawkins' (2004) theory: Evidence from Basque. *Linguistics* 49(5). 1079-1135.
- Andrés, Mercedes. 1996. *Perpaus konposatuaren joskera (J. Leizarragarengan oinarriturik)*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko doktorego tesia.
- Artiagoitia, Xabier 2000. *Hatsarreak eta Parametroak lantzen*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia & UPV/EHU.
- Boeckx, Cedric & Kleanthes K. Grohmann (arg.). 2003. *Multiple Wh-Fronting*. Amsterdam: John Benjamins.
- Boeckx, Cedric & Kleanthes K. Grohmann. 2003. Introduction. In Cedric Boeckx & Kleanthes K. Grohmann (arg.), 1-16. Amsterdam: John Benjamins.
- Bošković, Željko. 1997. Superiority effects with multiple wh-fronting in Serbo-Croatian. *Lingua* 102. 1-20.
- Bošković, Željko. 1999. On Multiple Feature Checking: Multiple Wh-Fronting and Multiple Head Movement. In Samuel David Epstein & Norbert Hornstein (arg.), *Working Minimalism*, 159-187. Cambridge: MIT Press.
- Bošković, Željko. 2001. On the interpretation of multiple questions. *Linguistic Variation Yearbook* 1(1). 1-15. <https://doi.org/10.1075/livy.1.03bos>.
- Bošković, Željko. 2002. On multiple wh-fronting. *Linguistic Inquiry* 33(3). 351-383. <http://dx.doi.org/10.1162/002438902760168536>.
- Bošković, Željko. 2003. On wh-islands and obligatory wh-movement contexts in South Slavic. In Cedric Boeckx & Kleanthes Grohmann (arg.), *Multiple wh-fronting*, 27-50. Amsterdam: John Benjamins.
- Bošković, Željko. 2007. A note on wh-typology. In Peter Kosta & Lilia Schürcks (arg.), *Linguistic investigations into formal description of Slavic languages: Contributions of the sixth European conference held at Potsdam University*, 159-170. Frankfurt am Main: Peter Lang.

- Bošković, Željko. 2015. Wh-movement. In Antonio Fábregas, Jaume Mateu & Michael T. Putnam (arg.), *Contemporary Linguistic Parameters*, 251-279. London: Bloomsbury.
- Chomsky, Noam. 1973. Conditions on transformations. In Stephen Anderson & Paul Kiparsky (arg.), *A Festschrift for Morris*, 232-286. New York: Holt, Rinehart and Winston.
- Dryer, Matthew S. 2013. Position of Interrogative Phrases in Content Questions. In Matthew S. Dryer & Martin Haspelmath (arg.), *The World Atlas of Language Structures Online*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. <http://wals.info/chapter/93> (2022-09-23).
- Duguine, Maia & Aritz Irurtzun. 2014. From obligatory WH-movement to optional WH-in-situ in Labourdin Basque. *Language* 90(1). e1-e30.10.1353/lan.2014.0006.
- Ettxepare, Ricardo. 2018. Ohar bat zer nork hurrenkeraren ezinaz euskaraz. *Lapurdum* 21. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.3762>.
- Ettxepare, Ricardo & Jon Ortiz de Urbina. 2003. Focalization. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, 459-516. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Euskaltzaindia. 1987. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-1*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea. 2021. *Euskararen Gramatika*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Hagstrom, Paul. 1998. *Decomposing questions*. Cambridge: MITeko doktorego tesia.
- Hornstein, Norbert. 1995. *Logical Form: From GB to Minimalism*. Oxford: Blackwell.
- Irurtzun, Aritz. 2021. Why questions break the Residual V2 restriction (in Basque and beyond). In Gabriela Soare (arg.), *Why is 'Why' Unique? Its Syntactic and Semantic Properties*, 63-114. Berlin: De Gruyter Mouton.
- Jeong, Youngmi. 2004. Multiple superiority effects in Basque. *University of Pennsylvania Working Papers in Linguistics* 10(1). 103-114.
- Jeong, Youngmi. 2007. Multiple Wh-Fronting in Basque. In Anastasia Conroy, Chunyuan Jing, Chizuru Nakao & Eri Takahashi (arg.), *University of Maryland Working Papers in Linguistics* 15, 98-142. College Park: UMWPI.
- Lafitte, Piarres. 1962. *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)*. Baiona: Ikas.
- Laka, Itziar. 1986. Azpikotasunaren Baldintzaz: Muga Adabegiak Euskaraz. In Patxi Goenaga (arg.), *Euskal Sintaxiaren Zenbait Arazo*, 97-127. Bilbo: UPV/EHU.
- Lakarra, Joseba Andoni. 1997. Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU* 31(2). 447-535.
- Michelioudakis, Dimitris & Ioanna Sitaridou. 2016. Recasting the typology of multiple wh-fronting: Evidence from Pontic Greek. *Glossa: a journal of general linguistics* 1(1): 40. 1-33. <http://dx.doi.org/10.5334/gjgl.72>.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Oyharçabal, Beñat. 1988. Operatzaile isila euskarazko perpaus erlatiboetan. *ASJU* 22(1). 93-97.
- Rijk, Rudolf P. G. de. 2008. *Standard Basque. A progressive grammar*. Cambridge: MIT Press.
- Rudin, Catherine. 1988. On multiple questions and multiple wh-fronting. *Natural Language and Linguistic Theory* 6. 445-501.
- Salaberri, Patxi. 2002. *Iraupena eta lekukotasuna*. Donostia: Elkar.
- Saltarelli, Mario. 1988. *Basque*. London & New York: Croom Helm.
- Sportiche, Dominique, Hilda Koopman & Edward Stabler. 2014. *An Introduction to Syntactic Analysis and Theory*. Chichester: Wiley Blackwell.

- Stoyanova, Marina. 2008. *Unique Focus. Languages without multiple wh-questions*. Amsterdam: John Benjamins.
- Wachowicz, Krystyna. 1974. Against the Universality of a single Wh-question movement. *Foundations of Language* 11. 155-166.

Erabilitako corpusak

Ereduzko Prosa Dinamikoa: <https://www.ehu.es/eu/web/eins/ereduzko-prosa-dinamikoa-epd->

Euskal Klasikoen Corpusa: <https://www.ehu.es/ehg/kc/>

Klasikoen Gordailua: <https://klasikoak.armiarma.eus/>

